

Azpeitia 19 07 23

BURDINBIDEAREN EUSKAL MUSEOAK UZTAILAREN 25ETIK 28RA LURRUNEKO 5 TREN ZIRKULAZIOAN JARRIKO DITU

Eusko Jaurlaritzaren Sozietate Publikoa den Euskotreneko Burdinbidearen Euskal Museoak, uztailaren 25etik 28ra lurruneko 5 tren zirkulazioan jarriko ditu.

5 trenek Museotik Lasara honako irteera ordutegia izango dute:

- Osteguna, uztailak 25: 12:00etan eta 13:00ean.
- Larunbata, uztailak 27: 12:30ean eta 18:00etan.
- Igandea, uztailak 28: 12:30ean.

Museoko instalazioen irekiera ordutegia ondorengoa da:

- Asteartetik larunbatera: 10:30etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:30etara.
- Igandeak eta jaiegunak (astelehenak izan ezik): 10:30etatik 14:00etara.

Burdinbidearen Euskal Museoak Europako tren bildumarik hoberenetarikoa bat dauka, mota askotako ibilgailuekin: lurrunezko, diesel eta elektriko tren-makinak; automotoreak eta bagoi mota desberdinak. Era berean, Museoak Euskadiko makina-tresna multzorik osatuena eskaintzen du, Urolako Trenbidearen antzinako tailer mekanikoaren bidez. Horrez gain, XIX. mende bukaeratik trenbidean erabilitako uniformeen erakusketa dago eta baita munduko trenbide erlojuen bildumarik hoberenetarikoa ere.

“Mugikortasun elektrikoak 130 urte Euskadin”_erakusketa

Historikoki, Euskadi mugikortasun elektrikoaren arloan liderra izan da penintsula osoan. Euskadin jarri zen abian estatuko lehen tranbia elektrikoa, 1896an, Bilbo eta Santurtzi artean, baita lehen tren elektrikoa ere, Uli mendikoa, 1902an. Gaur egun ere, Euskotrenek gauzatzen du penintsulako tren elektrikoaren ibilbide luzeena, Amara eta Loiola geltokien artekoa, zeina duela 116 urte elektrifikatu baitzen, 1903an.

130 urteko ibilbidearen ondoren, interesgarria da atzera begiratzea eta Euskadiko mugikortasun elektrikoaren historia aberatsa aztertzea. Horretarako, Museoko kotxetokietan banatutako 16 panel jarriko dira ikusgai erakusketan, eta abentura teknologiko honen protagonista izan diren zenbait ibilgailu ere ikusi ahal izango dira. Bestetik, trakzio-azpizentralaren ondoko eraikinean, Urolako trenak 1925etik erabiltzen zituen trakzio-energia transformatzeko eta artezteko sistema konplexuak ikusteko aukera izango dute bisitariek.

Jendearentzako informazioa

- Burdinbidearen Euskal Museoaren helbidea: Julián Elorza, 8 kalea (20730 AZPEITIA-GIPUZKOA).
- Informazio telefonoa: 943 15 06 77
- Faxe: 943 15 07 46
- Helbide elektronikoa: **museoa@euskotren.eus**
- Web gunea: **www.euskotren.eus**

Euskadi, auzolana, bien común

